

BIZKAIKO UMEEN SINBOLO NAZIONALEN JABETZE PROZESUA GIZARTE ZIENTZIEN OINARRIZKO CURRÍCULUMEAN

Ana Rosa Arribillaga, Begoña Molero

ABSTRACT

Within the process of acquiring the idea of one's country, the assumption of the flag as a symbol is included. How does this process take place in the case of children from Vizcaya, belong to an autonomous country with a strong nationalistic feeling? How does the age the school linguistic model or the geographic location influence? This research has been carried out with 274 children of both sexes, aged between 6 and 16 years and tries to give an answer to the above questions. It is worth noticing that the singularity of this process would imply a further knowledge of the cultural field and would appear as essential to design adequate educative projects suited to the existing peculiarities.

Dentro del proceso de adquisición de la idea de propio país se incluye la asunción de la bandera como símbolo ¿Cómo se realiza este proceso en el caso de los niños vizcainos pertenecientes a una Comunidad Autónoma con un fuerte sentimiento nacionalista?. ¿De qué modo influye la edad el modelo lingüístico de escolarización o la ubicación geográfica?. Esta investigación realizada con 274 niñas y niños vizcainos de edades comprendidas entre los 6 y los 16 años intenta dar respuestas a dichos interrogantes. Tener en cuenta la particularidad de este proceso supone conocer algo más de este ámbito cultural y resulta indispensable para diseñar proyectos educativos adecuados a las peculiaridades existentes.

Dans le processus d'acquisition de l'idée de pays on peut inclure la compréhension du drapeau comme son symbole. Comment se réalise-t-il ce processus dans le cas des enfants de Vizcaya qui appartiennent à une Communauté Autonome avec un fort sentiment nationaliste?. L'âge, la langue d'apprentissage, l'ubication géographique, quelle influence on-t-ils dans ce processus?. Ce travail fait avec 274 élèves scolarisés à la province de Vizcaya agés de 6 à 16 ans essaie de répondre à ces questions.

PALABRAS CLAVE

Conocimiento social, propio país, banderas, edad, modelo lingüístico.

KEYWORDS

Sotial Knowledge, one's country, flags, age, linguistic model

SARRERA

Euskal Herriko berezitasun kulturalaz Oinarrizko Curriculum-Diseinuak zera dio: "Askotarikoak dira etengabeko bilakaera eta garapenean dagoen herri baten gizarte eta kultur identitatea isladatzen duten agerpenak: historia, hizkuntza, ohiturak edo folkloretik hasi eta bere egoera sozioekonomiko, nazioen testuinguruan duen toki eta duen etorkizun-ikusperaino. Elementu guzti hauek eratzen dute bere identitatearen gaureguneko kontzientzia kolektiboa, barne kohesio maila handi batekin eta oraindik erantzun kolektibo amankomun bat hartzeko dauden arazoekin"

Euskal gizartearen berezitasun kultural horiek zertxobait argitzeko asmoz, kontzientzia kolektiboa eta nazio sentimenduz aritu gara.

Nazio konzeptuaz jabetzea oso konplexua da bere baitan bai elementu geografikoak, bai linguistikoak, baita politikoak ere biltzen bait dira. Ikerketa honetan sentimendu nazionala eratzen duenen arteko bat aztertu da, hain zuzen ere banderaren nazioaren sinbolotzat eta berarenganako sentimenduen adierazpena.

Goian aipaturiko aurrean dugularik eta Euskal Herrian, gizartearen sektore handi batean gutxienez, sentimendu nazionalak oso indartsuak direla ikusita, Bizkaiko umeen sinbolo nazionalen ezagupena eta sinboloekiko jarrerak aztertea oso gai interesgarria eta gaur eguneko iruditu zaigu.

Azterketa bibliografikoa egin ondoren ikerketa gehienak sinboloekiko jarretazartzen direla eta bandera eragingarritzat hartzen dutela egiaztatu dugu. Planteamendu berau izan da guk jarraitu duguna, Euskal Herriko ikasleek eta bereziki Bizkaikoek gai honen inguruan adierazten dituzten lehentasunak ezagutzeko.

Aurrean aipatutako berezitasun kulturek gizarte ezagupenaren eraketa prozesuan eragina dutenez, banderen izaera sinboliko jabetze prozesuaz hasita, Bizkaiko umeek agertzen dituzten banderak, bereziki espainarra eta ikurrinarrak aztertuko ditugu.

Horretarako Bizkaiko "A eredu" eta "D eredu" dituzten Eskola Publikoko 274 ikasleek parte hartu zuten. Ikasle kopurua erizpide hauek jarraiturik eratu da: Eskola, ikas maila eta eredu linguistikoko bakoitzeko hamarna ikasle. Aukeratutako ikas mailak hauexek izanik: O.H.O.ko 1. (6-7 urte), O.H.O.ko 4. (9-10 urte), O.H.O.ko 7. (13-14 urte) eta B.B.B.ko 1. maila (15-16 urte), lau eskualde ezberdinetakoak: Bilboko auzo batekoa (Txurdinaga), Ezkerraldekoa (Sestao), Eskuinaldekoa (Getxo) eta Herri euskaldun txiki batekoa (Orozko).

Ikasleen lehentasunak ezagutu ahal izateko lehenik 32 banderez osatutako fitxa bat erakutsi genien haiek gustokoak eta ez gustokoak zituzten banderak aukera zitzaten eskatuz; ondoren, haien inplikazio mailan sakontzeko asmoz bi dilema aurkeztu genizkien. Lehenengo dileman ikasleak kirolari ona zelako bandera bat aukeratu behar zuen Olinpiadetara joateko. Hori zela eta, zer bandera, zergatik eta zer errepresentatzen duen galdetu genien. Bigarrenean berriz, berak aukeratutako bandera ezin zuela eraman oztipoa jarriz ea zer egingo zuen eta horren zergatia galdetu zitzaion.

ONDORIOAK

Bizkaiko umeen banderak jarretarako eta banderen esanhaiaren jabetze prozesua 6-16 urte bitartean ezagutzeko egin den ikerketa honen ondorioak hauek izan dira.

Adierazi duten banderen preferentzi ordena bai lehenengo aukeran baita dileman egindako hautaketan oso antzekoa izan da. Beraz, gure ustez, azaldutako lehentasuna egonkorra da. Gehien hautatu den bandera ikurrina izan da beste banderetatik urrun geldituz.

Adierazitako lehentasuna adinaren arabera aldatu egiten da. Ikasle txikiak aukera dibertsifikatuena egiten dituztenak dira. Hori dela eta, 6-7 urtekin ikurrina zein bandera espainarrarekiko preferentziak portzentualki txikiak eta hurbilenak dira. Polarizazio handiena aldiz, ikasle nagusiek, 15-16 Urtekoek, adierazi dute. Bi jarretarako arteko pasabidea O.H.O.ko 7. mailan 12-13 urtekin eman da.

Guzti hori dela eta prozesu honetan adina aldagai eraginkorra dela ageri da.

Eredu linguistikoaren eragina aztertutik "D" eredu ikasleek ikurrina hartu dute "A" eredu ikasle bakoitzeko gehiago

eta A eredu ikasleek, nahiz eta ikurrina espainarra baino proportzio handiago batean hartu, bandera espainarra D eredu ikasle bakoitzeko gehiago hartu dute.

Eskolaren kokapen geografikoak azaldutako erantzunetan ez duela eraginik ematen du.

Agertutako preferentzien analisia bezain garrantzitsua gaitzespena da. Gaitzespenek bai besteenganako edo ta haien sinboloekiko errespeto jarretarako sorretarako eragin handia dute.

Hau dela eta ikurrina eta bandera espainarrarekiko jarretarako alderatuz, azken honek gaitzespen gehienak sortertzen dituela ikusi da. Lehenengo datuek hau agertzen badute ere, inpresio hau aldatzen da ikasleek Joku Olinpikoetan bere burua errepresentatzen duen bandera aukertzen dutenean. Kasu honetan eta nahiz eta ikurrinaren lehentasuna berriro ere agertu, hirugarren aukeran bandera espainarra agertzen da. Gainera aukeratutako banderarekin oztipoak sortzen direnean eta beste bandera aukeratu behar dutenean espainarra hartzen dute.

Lehenengo dilema honi dagozkion datuak aztertuz, adinaren arabera duela agertzen da. Adina kontutan izanda ikasle txikiak aukera dibertsifikatuena egiten dute, 10-11 urtekoek ikurrinarrarekiko eta bandera espainarrarekiko interes berdintsua agertzen dute, 12-13 urtekoek baina batez ere 15-16koek ikurrinaren aldeko polarizazio nabariena agertzen dute.

Eredu linguistikoak nolabaiteko eragina duela ikusten da, "A" zein "D" eredu ikasle ikurrinaren lehentasuna agertu arren, "A" ereduaren erdiak ikurrina eta bandera espainarra ez diren beste banderak aukertzen dituzte. "D" eredu ikasle bakoitzeko gehiago ikurrina hartzeaz gain oso portzentu txikitik aukertzen dituzte proposatutako beste banderak.

Banderaren esanhaiari dagokionez, berriro ere, adinaren arabera ikusten da, 10-11 urtetik aurrera hiru laurdenek badakite aukeratutako bandera nongoa den. Adinaz bandera ezagutzeaz gain bere balio sinbolikoaz ohartzen dira. Beraz, handitzearekin batera arrazoi estetikoak gutxitzen dira sinbolikoak indartuz. Era honetan 6 urtekoen %ko 15k, 10 eta 13 urtekoen erdiak eta 15-16 urtekoen hiru laurdenek arrazoi sinbolikoak ematen dituzte.


Bigarren dileman, hau da, aukeratutako bandera ezin dela eraman arazoaren aurrean, erdiak baino gehiago jarretarako lasaia agertzen du. Protesta agertzen dutenen artean bakarrik %ko 6,44k biolentzia agertzen du. Azpimarratzekoa da ikasle nagusi gehienagoko jarretarako biolentzia gutxi eta arrazoiak jakitearen alde agertzen direla.

Analisi hau egin ondoren gure ikerketan parte hartu duten ikasleek bandera autonomikoarekiko identifikazioa adierazi dutela nabaria da.

Norberaren banderarekiko identifikazio honek beste sinboloekiko errespetu eta tolerantzia dakartza, kultura ezberdin arteko elkar ulertzearen islada izan daitekena.

EMAITZAK

1 Irudia: 1. aukeran hautatuak izandako banderak



14. espainarra / 17: ikurrina / 27: JJ.OOtakoa.

2 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrinaren onarpena 1.

Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | 3 | Totals: |
|-----------|--------|--------|--------|---------|
| 1ª | 67.65% | 11.76% | 20.59% | 100% |
| 4ª | 39.71% | 23.53% | 36.76% | 100% |
| 7 | 40% | 7.14% | 52.86% | 100% |
| 1ª B.U.P. | 22.06% | 0% | 77.94% | 100% |
| Totals | 42.34% | 10.58% | 47.08% | 100% |

Chi Square: 61.858 p = 1.0000 E-4 / DF:6

1: Beste banderak / 2: bandera espainarra / 3: ikurrina

3 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrinaren onarpena 1. aukeran eerdur linguistikoz


Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | 3 | Totals: |
|--------|--------|--------|--------|---------|
| A | 48.31% | 16.95% | 34.75% | 100% |
| D | 37.82% | 5.77% | 56.41% | 100% |
| Totals | 42.34% | 10.58% | 47.08% | 100% |

Chi Square: 16.376 p = 3.0000 E-4 / DF:2

1: Beste banderak / 2: bandera espainarra / 3: ikurrina

4 Irudia: Zenbat Aldiz izan da gaitzestua bandera bat. 1 aukeran



14: espainarra / 20: galiziarra / 2: andaluziarra / 25: N.B.Ekoa / 26: Nepalekoa

5 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrinaren gaitzespenak 1. aukeran adinez

Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | 3 | Totals: |
|-----------|--------|--------|-------|---------|
| 1ª | 97.06% | 0% | 2.94% | 100% |
| 4ª | 98.53% | 1.47% | 0% | 100% |
| 7 | 82.86% | 17.14% | 0% | 100% |
| 1ª B.U.P. | 54.41% | 45.59% | 0% | 100% |
| Totals | 83.21% | 16.06% | 0.73% | 100% |

1: Beste banderak / 2: bandera espainarra / 3: ikurrina
Ezin izan zen Chi-Square kalkulatu lauki kopuru signifikagarri 5 baino gutxiagoko balioa izan duelako


6 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrina 1. aukeran eredu linguistikoz

Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | 3 | Totals: |
|--------|--------|--------|-------|---------|
| A | 88.98% | 9.32% | 1.69% | 100% |
| D | 78.85% | 21.15% | 0% | 100% |
| Totals | 83.21% | 16.06% | 0.73% | 100% |

Ezin izan zen Chi-Square kalkulatu lauki kopuru signifikagarri 5 baino gutxiagoko balioa izan duelako

7 Irudia: Zenbat aldiz izan da aukeratua bandera bat dileman



14: Bandera espainarra / 15: EE.B.B. / 17: ikurrina / 27 J.J.O.O.

8 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrinaren aukera dileman adinez

Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | 3 | Totals: |
|-----------|--------|--------|--------|---------|
| 1º | 63.24% | 11.76% | 25% | 100% |
| 4º | 39.71% | 26.47% | 33.82% | 100% |
| 7 | 32.86% | 12.86% | 54.29% | 100% |
| 1º B.U.P. | 13.24% | 2.94% | 83.82% | 100% |
| Totals | 37.23% | 13.5% | 49.27% | 100% |

1: Beste banderak / 2: espainarra / 3: ikurrina
Chi-Square 65.859 p = 1.000 E-4 / DF: 6

9 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrinaren aukera dileman ereduz

Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | 3 | Totals: |
|--------|--------|--------|--------|---------|
| A | 48.31% | 17.8% | 33.9% | 100% |
| D | 28.85% | 10.26% | 60.9% | 100% |
| Totals | 37.23% | 13.5% | 49.27% | 100% |

1: Beste banderak / 2: espainarra / ikurrina

Chi-Square: 19.602 p = 1.000 E-4 / DF: 2

10 Irudia: Bandearen aukeran emandako arrazoiak

Percents of Row Totals

| | 1 | 2 | Totals: |
|-----------|--------|--------|---------|
| 1º | 83.82% | 16.18% | 100% |
| 4º | 46.15% | 53.85% | 100% |
| 7 | 48.57% | 51.43% | 100% |
| 1º B.U.P. | 23.53% | 76.47% | 100% |
| Totals | 50.78% | 49.22% | 100% |

1: Beste arrazoi / 2: Arrazoi sinbolikoak
Total Chi-Square: 50.491 p = 1.000 E-4 DF:3

11 Irudia: Bandera espainarra eta ikurrinaren gaitzespenak 1. aukeran adinez

Percents of Row Totals

| | 1A | 2B | 3 | Totals: |
|-----------|--------|--------|--------|---------|
| 1º | 2.94% | 5.88% | 91.18% | 100% |
| 4º | 5.97% | 10.45% | 83.58% | 100% |
| 7 | 13.24% | 39.71% | 47.06% | 100% |
| 1º B.U.P. | 3.28% | 57.38% | 39.34% | 100% |
| Totals | 6.44% | 27.65% | 65.91% | 100% |

1A: protesta biolenta / 1 B: protesta paketsua / 2: lasaitasuna

Total Chi-Square 68.989 p = 1.000 E-4 / DF: 3

BIBLIOGRAFIA

- ARRIBILLAGA, A., MOLERO, B. (1993): "Asunción de los símbolos nacionales (banderas) en las Comunidades Autónomas el caso vasco en *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*. (En prensa)
- ARRIBILLAGA, A., MOLERO, B. (1993): 'Sinbolo nazionalen jabetze prozesua Banderak'. Tantak (Prentsan).
- DELVAL, J. (1981): La representación infantil del mundo social *Infancia y Aprendizaje* 13 págs. 35-67.
- DELVAL, J.; DEL BARRIO, C.; Y ECHEITA, G. (1984): "El conocimiento de los niños de su propio país". *Cuadernos de Pedagogía*, 75, págs. 33-36.
- DELVA, J. (1989): La representación infantil del mundo social en Turiel, E., Enesco, I., y Linaza, J. (comp.): *El mundo social en la mente infantil*. Alianza. Madrid.
- ECHEITA, G.; DEL BARRIO, C.; MARTIN, E.; MORENO, A. Y DELVAL, J. (1984): "El desarrollo en el niño del conocimiento sobre el propio país y los extranjeros : Revisión de la Bibliografía" en *Revista de Educación*, 274, págs. 171-206.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Eusko Jaurlaritza (1992): *Oinarrizko Curriculum Diseinua Lehen Hezkuntza Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*.
- LAWSON, E.D. (1975): "Flag preference as an indicator of patriotism in Israeli Children" *Journal of Cross-cultural Psychology*, 6, págs.490-497.
- PIAGET, J. (1926): *La representation du monde chez l'enfan* (París; trad. cast. *La representación del mundo en el niño*. Madrid Morata, 1973.
- TAJFEL, H.; NEMETH, C.; JAHODA, G.: CAMPBELL, J.D.; Y JOHNSON, N. (1970): "The developement of children's preference for their own country" *International Journal of Psychology*, 3, págs 245-253.